

EUSKADI.-Bilboko udal liburutegiek kalera aterako dituzte udan euren zerbitzuak

BILBO, 29 (EUROPA PRESS) Uztailaren 1etik aurrera, Bilboko udal liburutegiak kalera atera eta liburu, prentsa eta aldizkariak prestatuko dituzte eta irakurketa suspertzeko tailerrak emango dituzte plaza, parke eta igerilekuetan. Ekimen hau Bilboko Udal Liburutegien Sareak eta Bilboko Udaleko Kultura eta Euskara Sailak abiarazi dute Bilboko Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Sailaren, IMD-Bilbao Kirolak, Gurutze Gorria Gazteria eta Pampox eta Gure Lurra elkarteen laguntzarekin. Eguraldi ona eta oporrekin batera bilbotarrekin haize zabalean egon, liburutegien erabiltzaileen irakurtzeko ohitura erraztu, irakurtzeko gogorik ez dutenen artean gogo hori biztu eta esnatu eta liburutegia hiritarren artean sustatzea dira ekimenaren helburu nagusiak, antolatzaileek adierazi dutenez. Aurreko edizioetan lortutako emaitza onei esker (15.000 erabiltzaile baino gehiagok jarduera hauetan parte hartu zuten iaz), Bilboko herritarrek sendotu eta hobetutako jarduerekin gozatu ahal izango dute: jenero ezberdinetako (eleberria, haur eta gazte literatura, aisia, autolaguntza) 3.000 liburu baino gehiago, bertoko prentsa, 200 aldizkari baino gehiago eta irakurketa suspertzeko tailerrak haurrentzat. Horrela, Mariaren Bihotza Plazak, uztailaren 3tik 28ra bitartean eskainiko dizkie irakurleei Liburutegien Sareko jarduerak, 11,00etatik 13,30etara, goizez, eta 17,00etatik 19,30etara, arratsaldean. Bestalde, "Jolastu Parkean" Bilboko Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Kirola Sailak abiarazitako jolas-espazioa da. Programa honetan Liburutegien Sareak irakurketa atal batekin parte hartuko du Areatzako pasealekuan eta Zorrotzako parkean uztailaren 3tik 14ra, 11,30etatik 13,30etara eta 17,00etatik 19,00etara, eta irailaren 4tik 15era, 16,30etatik 20,00etara. Azkenik, Txurdinaga eta Fangoko igerilekuak liburutegi bihurtuko dira uztailaren 1etik irailaren 3ra bitartean eta hurbiltzen direnek bustialdiak eta irakurketa bateratu ahal izango dituzte 12,00etatik 20,00etara